



# Erakundearen Ikusizko Nortasunaren Programa



## Erakundearen Ikusizko Nortasunaren Programa

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 30a





Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak dokumentu hau prestatu du Gazte Informazio Zerbitzu ofizialen sarearen Ikusizko Nortasun (marka) berriaren erabilera arautzeko xedearekin, beti ere indarrean dagoen araudiari jarraiki. Ikusizko komunikazio sistema batez eta sareak mezuak zabaltzen dituen euskarrietako bakoitzari dagozkion aplikazioak zuzenduko dituen arau multzo batez horniturik geratuko da marka.

Erakundearen Ikusizko Nortasunaren Programa honen hartzaileak honako hauek izango dira: Eusko Gazteen Informazio eta Dokumentazio Zentro Koordinatzailea, Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzari atxikia; lurralde bakoitzeko foru aldundiaren mendeko Gazte Informazio Lurralde Zentroak; eta Gazte Informazio Zerbitzuen sarea.



aurkibidea



## 1. Sarrera

## 2. Oinarrizko nortasun arauak

- 2.1. Gure marka
- 2.2. Markaren bertsioak
- 2.3. Markaren eraikuntza
- 2.4. Babes-eremua
- 2.5. Txikitzeko arauak
- 2.6. Kolorearen normalizazioa
- 2.7. Bertsio kromatiko eta monokromatikoak
- 2.8. Erakunde-tipografia
- 2.9. Beste marka batzuekin batera

## 3. Erakunde-nortasunaren oinarrizko aplikazioak

- 3.1. «Zentro Koordinatzailea» papergintza instituzionala
- 3.2. Erakunde-papergintza
- 3.3. «Lurralde Zentroak» papergintza
- 3.4. Administrazio lanetarako «Gazte Informazio Bulegoak» papergintza
- 3.5. Gutunen bigarren orria
- 3.6. Estilo-orria
- 3.7. Mezu elektronikoetarako sinadura
- 3.8. Bulegoko materiala
- 3.9. Erakunde-karpetak
- 3.10. Ekitaldi publikoetarako kartelak

## 4. Seinuletika (kanpoko seinaleztapena)

## 5. Barneko espazioak girotzea

## 6. Elementu promozionalak

*Oharra: eskuliburu honetan inpimatuta dauden koloreak gutxi gora-beherakoak dira. PANTONE® gida erabiliko da koloreen erreferentzia gisa.*

The background features a gradient from dark purple at the bottom to bright pink at the top. Several thin white lines crisscross the scene, creating a dynamic, abstract composition.

1

**Sarrera**



**Gazteinformazioa** marka gure erakundearen ikusizko adierazmoldea da, eremu publikoan gure irudia eta gure presentzia indartzen laguntzen diguna. Markak Euskadiko Gazte Informazio Zerbitzuak konfiantzazko irudi pertsonalizatuz hornitzen ditu.

Erakundearen Ikusizko Nortasunaren Programa honek Euskadiko Gazte Informazio Zerbitzuen sarearen (**gazteinformazioa**) nortasun bereizgarrien ikusmolde bat eta bakarra transmititzeko beharrari erantzuten dio. Etorkizunean izango dugun proiektzioaren funtsezko osagaia da Programa.

Eskuliburua **gazteinformazioak** bere mezuak zabaltzeko darabiltzan euskarri eta bide guztietan erakundearen ikusizko nortasuna aplikatzeko arauen erreferentzia dela ulertu behar da, erabiltzaileen eskura dagoena. Kontsultarako dokumentu teknikoa da, nagusiki Euskadiko Gazte Informazio Zerbitzuen sareari eta arte grafikoaren, diseinuaren eta komunikazioaren arloko profesionali zuzendua.

**Gazteinformazioaren** edozein komunikazio elementu lantzeko garaian erabili behar diren oinarriko jarraibideak barne hartzen dituen diseinu gidaliburua da. Berari esker ikusizko identifikazioen multzo osoa, bai kanporakoa bai barnerakoa, bateraturik geratzen dira. Horrenbestez, ezinbesteko tresna da bertan definitzen diren nortasun-elementuak aplikatzeko garaian.

Programaren bidez **gazteinformazioa** markaren aplikazio eta erabilera arauak eta erakundearen ikusizko osagaietan eta osagai grafikoetan ordena ezartzera bideratutako konstanteak ezartzen dira. Funtsezkoa da arauak zorrotasunez betetzea, gure komunikazio ekintzen eraginkortasuna ahalik eta handiena izango bada. Hortaz, ez dago hemen zehaztutako elementuak aldatzerik edo hemen azaltzen diren jarraibideei men egin gabe beste batzuk sortzerik.

Arau hauek zuzentasunez aplikatuz gero, **gazteinformazioa** markaren irudi oso, esaguratsu eta koherentea lortuko dugu.